

1. ERANSKINA

"ENGLISH WEEK" HIZKUNTZA MURGILKETARAKO PROGRAMAKO DEIALDIA, LEHEN HEZKUNTZAKO 5. MAILAKO IKASLEENDAKO, 2020KO URTARRILA - AZAROA

1. Deialdiaren xedea eta helburua.

1.1. Hezkuntza Departamentuak deialdia egin du ingelesean murgiltzeko barnetegiko ikastaroetan parte hartzeko, Nafarroako ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako 5. mailako ikasleendako. Guztira 2.400 ikaspostu eskaintzen dira.

1.2. Programa honen helburua da ikastetxe desberdinetako ikasleen arteko elkarbizitza bulkatzea, eta ingelesaren ikaskuntza indartzea eta motibatzea, aukera emanaz ingelesa gelatik kanpo erabiltzeko, testuinguru naturaletan. Komunikatzeko eta ikasteko hizkuntza bakarra ingelesa izanen da.

2. Ikastaroen deskribapena eta ezaugarriak.

2.1. Aste bateko 27 egonaldi antolatuko dira, txanda bakoitzean gehienez ere 95 ikasle izanen direlarik. Egonaldi bakoitzak 5 egun iraunen du, astelehenetik ostiralera (jaiegunak dituzten asteetan izan ezik). Nafarroako ikastetxe desberdinetako ikasleak elkarrekin biziko dira, mantenu osoa dutela, jarraian adierazitako tokietan:

- Lekarozko aterpetxea, Lekarozen.

Jarduerak egiteko talde txikiak antolatuko dira.

2.2. Ikastaroetan, jarduera akademikoak ez ezik, bestelakoak ere izanen dira, hala nola kirolak, aisialdikoak eta lantegiak.

2.3. Ikasle bakoitzak, bere ikastetxearen bidez, 100 € ordainduko dio Nafarroako Hizkuntzen Autoikaskuntzarako Guneari. Era berean, ikastetxeak kudeatuko du garraioa; horren kostua parte hartzen duten ikasleen gain egon daiteke.

2.4. Betetzearren, batetik, ekainaren 21eko 38/2010 Foru Dekretua, zeinaren bidez garatzen baita Familia ugariei buruzko 20/2003 Foru Legea eta, bestetik, otsailaren 7ko 5/2019 Foru Legea, Nafarroako Foru Komunitatean familia gurasobakarrak egiaztatzeari buruzkoa, programaren prezioan honako murriztapen hauek eginen zaizkie hurrengo egoera hauetan dauden familiei, egoera hori agiri bidez frogatzen badute:

- %10, kategoria orokorreko familia ugariei eta familia gurasobakerrei edo guraso bakarreko egoeran daudenei, bai eta %33ko edo hortik gorako desgaitasun aitortua duten pertsoneri.

- %20, kategoria bereziko familia ugariei eta familia gurasobakarrei edo guraso bakarreko egoeran daudenei, ekintza terroristen biktimei (baita ezkontideari eta seme-alabei ere), genero indarkeriako ekintzen biktimei (baita seme-alabei ere) eta %65eko edo hortik gorako desgaitasun aitortua duten pertsoneri:

Familiendako kostu ekonomiko hau izanen du ikastaroan parte hartzeak:

TALDEAK ETA EGUNAK	PREZIO A	PREZIOA ken %10	PREZIOA ken %20
5 eguneko astea	100 €	90 €	80 €
4 eguneko astea	80 €	72 €	64 €
3 eguneko astea	60 €	54 €	48 €

2.5. Hezkuntza Departamentuak Nafarroako Hizkuntzen Autoikaskuntzarako Guneari esleituko dizkio programaren kudeaketa eta gauzatzea, Hezkuntza Departamentuko zentro instrumentala baita. Horretarako, Nafarroako Hizkuntzen Autoikaskuntzarako Guneak behar bezala gaitutako behar adina langile izanen du, ikasleei etengabe laguntzeko eta beren eginkizunak betetzeko.

3. Egunak eta ikastaroen banaketa.

Ikastaroen egutegia, 2020ko urtarriletik azarora bitartekoa.

Antolaketarekin lotutako arrazoiengatik, egutegi honetan aldaketak gerta daitezke (aste batzuk gehitu nahiz bertan behera utzi, edo egoitzaz aldatu).

19-20 ikasturtea

- 1. taldea: urtarrilaren 27tik 31ra arte
- 2. taldea: otsailaren 3tik 7ra arte
- 3. taldea: otsailaren 10etik 14ra arte
- 4. taldea: otsailaren 17tik 21era arte
- 5. taldea: martxoaren 2tik 6ra arte

- 6. taldea: martxoaren 9tik 13ra arte
- 7. taldea: martxoaren 16tik 18ra arte *3 egun
- 8. taldea: martxoaren 23tik 27ra arte
- 9. taldea: martxoaren 30etik apirilaren 3ra arte
- 10. taldea: apirilaren 20tik 24ra arte
- 11. taldea: apirilaren 27tik 30era arte * 4 egun
- 12. taldea: maiatzaren 4tik 8ra arte
- 13. taldea: maiatzaren 11tik 15era arte
- 14. taldea: maiatzaren 18tik 22ra arte
- 15. taldea: maiatzaren 25etik 29ra arte
- 16. taldea: ekainaren 1etik 5era arte
- 17. taldea: ekainaren 8tik 12ra arte

Udazkena, 20-21 ikasturtea

- 18. taldea: irailaren 14tik 18ra arte
- 19. taldea: irailaren 21etik 25era arte
- 20. taldea: irailaren 28tik urriaren 2ra arte
- 21. taldea: urriaren 5etik 9ra arte
- 22. taldea: urriaren 13tik 16ra arte *4 egun
- 23. taldea: urriaren 19tik 23ra arte
- 24. taldea: urriaren 26tik 30era arte
- 25. taldea: azaroaren 2tik 6ra arte
- 26. taldea: azaroaren 9tik 13ra arte
- 27. taldea: azaroaren 16tik 20ra arte

Taldeei astelehenean 10:00etan eginen zaie harrera, eta ostiralean 16:00etan alde eginen dute.

4. Eskaerak aurkezteko epea eta modua.

4.1. Eskaerak aurkezteko epea 2019ko abenduaren 10ean bukatuko da, asteartearekin, 00:00etan. Deialdia webgune hauetan argitaratuko da: www.educacion.navarra.es/ (Hezkuntzako berriak) eta www.navarra.es.

4.2. Eskabidea Google Drive-ko inprimakiaren bidez igorriko da, helbide honetan:

<https://forms.gle/mum4yzijFqZtHzut8>

4.3. Aitaren, amaren edo legezko tutorearen baimena (3. eranskina), behar bezala beterik eta sinaturik, ikastetxearen esku geldituko da.

4.4. Eskaerei dagokienez, garrantzitsua da honako hauek kontuan izatea:

a) Zuzendaritza taldeek adierazi beharko dute zehazki zenbat ikaslek hartuko duten parte. Garrantzitsua da kalkulu erreala egitea, eskaeran agertzen den kopurutik gora ez baita ikaslerik onartuko.

b) Onartuko dira bi ikastetxek edo gehiagok batera aurkeztutako eskaerak, uste dutenean eskaera elkarrekin aurkeztea komenigarri dela hurbil daudelako, kidekoak direlako edo beste arrazoi batzuegatik.

c) Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloa talde bakar batean bildurik duten ikastetxeen kasuan (eskola unitarioak), Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailako ikasleak onartuko dira talde eta aste berean, eskaera osatzeko.

5. Hautapen batzordea eta baremoa.

5.1. Hezkuntza Departamentuak hautapen batzorde bat izendatuko du, kide hauek izanen dituen:

Burua: Atzerriko Hizkuntzen Ataleko burua edo hark eskuordetzen duena.

Batzordekideak: Atzerriko Hizkuntzen Ataleko aholkulari teknikoak.

5.2. Baremoa.

Batzordeak baremo hau kontuan hartuta baloratuko ditu eskaerak:

Irizpideak	Puntuazioa
A.-Kokapen geografikoa 5.000 biztanle bitarte: puntu 1 5.000 biztanle bitarte: puntu 1 5.001 eta 15.000 biztanle artean: 0,5 puntu	Gehienez puntu 1
B.- Eskola unitarioak	puntu 1
C.- Ikastetxeak izan duen parte-hartzea 2017-18 eta/edo 2018-19 ikasturteetan atzerriko hizkuntzak ikasteko programa berritzaileetan: e-Twinning: 0,5 puntu Erasmus elkarteak: 0,5 puntu Atzerriko hizkuntzetan ikasteko programa: 0,5 puntu	Gehienez puntu 1
D.- Aurreko deialdietan parte hartu izana: 2018an parte hartu ez badu: puntu 1 2019an parte hartu ez badu: 2 puntu 2019an erreserban gelditu bada: puntu 1	Gehienez 4 puntu
E.- Ikastetxe eskatzaileko Lehen Hezkuntzako 5.eko	Gehienez 3

<p>ikasleen egoera sozioekonomikoa: (hez. pr. bereziak eta giz. eg.): gehienez 1,5 puntu Atzerrian dutenak jatorria: gehienez 1,5 puntu (Hezkuntza Departamentuak EDUCAn jasotako informazioa)</p>	<p>puntu</p>
--	--------------

5.3. Azken puntuazioetan berdinketarik gertatuz gero, jendaurreko zozketa egingen da, aurretik iragarriko dena.

5.4. Batzordea saiaturiko da ikastetxe desberdinek bat egin dezaten.

6. Deialdiaren ebazpena.

6.1. Aipatutako hautapen batzordeak proposaturik, Hezkuntza Departamentuak deialdiaren behin-behineko ebazpena argitaratuko du webgune hauetan: www.educacion.navarra.es/eu/web/dpto/inicio (Hezkuntzako berriak). Une horretatik, eskatzaileek 3 egun naturaleko epea izanen dute ebazpenaren aurkako erreklamazioak aurkezteko eta, hala badagokio, eskatzen zaizkien agiriak zuzentzeko. Deialdi honetako ikastetxeen behin betiko zerrenda aipatutako webguneetan argitaratuko da izan litezkeen erreklamazioen gainean ebatzi eta gero.

6.2. Hezkuntzako zuzendari nagusiak gehienez ere hiru hilabetean ebatziko du deialdi hau, webguneetan argitaratzen denetik hasita.

7. Irakasle laguntzaileen eginkizunak.

7.1. Ikasleek beren ikastetxeko irakasleekin joan beharko dute. Ikasleei laguntzen dieten irakasleen txandak ezar ditzakete ikastetxeek, baldin eta bermatzen badute irakasle bera 24 orduz izanen dela gutxienez.

7.2. Eginkizunak.

-Ikasle taldeari laguntzea joateko eta etortzeko bidaietan. Aurreko puntuan aipatutako informazioa jaso, eta parte hartzen duten familiei eta ikasleei zabaltzea.

-Ikasleekin egotea barnetegian dauden bitartean, eta ikasleen parte-hartze egokiaren erantzukizuna beren gain hartzea.

-Jardueren programan parte hartzea, ikastaroko zuzendariari lagunduz hala behar duten jardueretan.

-Bizikidetzaren arauak, jantokikoak eta atsedenaldirakoak barne, ezagutzea eta haiek betetzen laguntzea, eta ikasleei eta familiei horien berri ematea.

8. Irakasle laguntzaileen egiaztagiria eta bukaerako txostena.

8.1. Egonaldi guztian irakasle laguntzaile aritzen direnei prestakuntzako 50 orduko egiaztagiria emanen zaie.

8.2. Irakasle laguntzaileek bukaerako txostena egingen dute (bi orri gehienez) bidaltzen zaien aplikazioa erabilita.

9. Parte hartzeko baldintzak.

9.1. Parte-hartzeak berarekin dakar Hezkuntza Departamentuak unean-unean ezartzen dituen baldintza eta arau guztiak onartzea.

9.2. Parte hartzen duten ikastetxeek ikasleen guraso edo legezko tutoreen baimen agiriak, 3. eranskinaren arabera, gordeko dituzte.

9.3. Ikasleen zerrendan aldaketarik gertatzen bada, lehenbailehen jakinaraziko zaio Atzerriko Hizkuntzen Atalari, lperezle@navarra.es helbidera idatziz.

10. Beste xedapen batzuk.

10.1. Hezkuntza Departamentuak eskubidea izanen du eskatzaileek aurkezten dituzten datuak ikuskatzeko.

10.2. Datu horiek gezurrezkoak badira edo deialdiko arauak edo departamentuak ikasle hautatuen egonaldi eta jardueretarako ezartzen dituenak betetzen ez badira, ikaslea programatik kanpo geldituko da, izan litezkeen legezko ekintzak galarazi gabe.

10.3. Edozein arau urratzen duten ikasleak berehala kanporatuko dira programatik. Kanporatuz gero, gurasoek edo legezko tutoreek arduratu beharko dute adingabea eramateaz.

10.4. Deialdi honetan parte hartu ondoren, egonaldiaz edo egindako ikastaroan izan duten errendimenduaz txosten negatiboa hartzen duten ikasleak ezin aurkeztuko dira datorren urtean xede honekin berarekin egin litekeen ikaspostuen deialdian, ezta Hezkuntza Departamentuaren antzeko deialdietan ere.

10.5. Deialdi honen gaineko informazio guztiak eskuratzen ahal dira Hezkuntza Departamentuko Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Zerbitzuan, baita webgune hauetan ere: www.educacion.navarra.es/eu/ (Hezkuntzako berriak) eta www.navarra.es/home_eu/

10.6. Behin betiko esleipenaren berri posta elektronikoaren bidez emanen zaie ikastetxe parte-hartzaileei. Horiek bide beretik adierazi beharko dute onartzen duten edo uko egiten dioten, bost eguneko epean.